

**N**orbaitek niri aita deitzeko aukera aspaldian dut galdutzat, apaiztegia izena eman ez nuenetik, baina ongi daramat. Bikotekide-dun ala gabe, ez dizkiot inori nire jakituria, nire aurreiritziak, nire klase soziala, nire frustrazioak, nire geneak, nire hiltzeko joera helaraziko. Inork ez nau, ibilbide topikoari kasu



**JIRA**  
Angel Erro

egitera, guztiz behartuko, itsuki miretsiko, bat-batean mesprextatuko, berriz maiteko, beharbada zainduko eta gero ahaztuko. Eta, halere, seme gisa, orain aipatu fase horietako zeinetan (edo zeinen artean) nagoen ere, nire aitari eskertzen (edo barkatu) diot ni hemen egoteko bere ekarpenetxo.

«Bere ekarpenetxo heteropatriarkala» idazteko puntuan izan naiz, baina oso zail egiten zait aita hegemonia posizioan irudikatzea, nik ezagutu dudantetik. Otzana, isula, esanekoa, zertutasunik gabea, ahula, tontotzat hartua, beldurtia. Norbait, salbuespenak arrisku moduan bizi dituen norbait, goiko deskripzioaren ezaugarrien azpian nagusikeria sintoma ezkutatuak bilatzen ariko da, nire aitari bizi garen gizarte bidegabe honen jarraipenaren erru kuota esleitzeko. Baina gaur egun ona izan daiteke errua nire gain hartzeko, aita otzatan, ahul, ezjakina badelako inoiz aitagabeturik sentitu naizelako.

## Sareko ni

**D**enbora daramat argazki makina bat erosi nahian, eta Facebookek egunerogorazarzten dit horretarako dirua falta zaidala. Orriko iragarkiak pertsonalizatzen dituen algoritmo apetatsuk irudi zehatza osatu du Interneteko nire bilaketari esker. Bere kabuz ondorioztatu du, esaterako, amatasunaz pentsatzen hasi beharko nukeen adinean naguela, haurdunaldi testen iragarkiek erakusten dutenez gero. Portugesez dakidala ere uste du, sarrri gomendatzen baitit *Criança amorosa* deituriko orrialde bat. Eta Kataluniatik joan-etorri ibiltzen naizela ere badakienez, beti eskaintzen dizkit autobusak ospa egiteko.



**BIRA**  
Samara Velte

Martxoaren 8an takoidun zapatak agertu zitzaizkidanean, haserretu egin nintzen algoritmoarekin: «Hau engainatu beharra dago nolabait». Harrezkero *drag-king* tailer bat egiten saiatu naiz *online*, Facebookentzat 50 urteko gizon bihurtu ote naitekeen ikusteko. Bizarra mozteko markak bilatu ditut Googlean, gorbaten prezioak eta, are, Audiak saltzen dituzten kontzesionarioak. Uste dut lortu dudala algoritmoa gutxienez harritzea, Madrilgo *gay-bar* dotoreen mapa bat erakutsi baitit lehenbizi. Baina berehala ohartu da ziria sartu diodala: Facebook zabaldu dudana hurrengo aldian, hortxe zeuden berriro soineko lorendunak eta atzerrian ikasteko bekak. Betiko neska gazte prekariora naiz berriz.

# Alemaniarako Giza Eskubideen Institutua

**Jon Mirena Landa**

Zigor zuzenbideko katedraduna

**G**iza eskubideen kultura, filosofia, izen desberdinekin, betidanik egon da presente gizateriaren bilakaera historikoa. Giza duintasunaren ideia bai erlijioetatik, bai gizatasun-ideologietatik bultzatu egin da esparru geografiko desberdinetan. Baina horren aldarrikapen juridiko eta unibertsala, pertsona guztien berdintasunean oinarriturik, lehenengo aldiz 1948. urtean egin zen, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) eskutik. Harrezkeroztik, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalari esker, nazioarteko giza eskubideen zuzenbidea jaio eta indartuz joan da.

1948tik 1990eko hamarkadara arte, Estatu Batuetako eta lehengo Sobietar Batasunaren arteko talka ideologiko etengabeak oztupo gaindiezina jarri zioten giza eskubideen aldeko kulturaren garapenari: bazirudien aukeratu beharra zegoela giza eskubide batzuen eta besteen artean; mendealdeko herrialdeek eskubide zibil eta politikoen alde egiten zutela, eta herrialde komunistentek, berriz, eskubide ekonomiko- en, sozialen eta kulturalen alde.

Alemania erditik zatitzen zuen harresia erori izana, ordea, 1989. urtean, sinbolo argi bilakatu zen, aro berri bati atea irekiko ziona. *Gerra hotza* izeneko desagertzeko zorian zegoen, etsaigo ideologiko sutsua, pixkanaka urtzen hasia zela eta horrek aukera eman zuen giza eskubideen kulturaren baitan ikaragarriko jauzi kualitatiboa emateko.

Jauzia 1993an Vienako Giza Eskubideen Munduko Biltzarren eskutik etorri zen, hain zuzen ere. Bitan bakarrik antolatutako NBEk giza eskubideen gaineko halako mundu biltzarra: lehenengoa, Teheranen, 1968. urtean; eta bigarrena eta azkena, Vienan, 1993an. Biltzar horien helburua mundu mailan giza eskubideen diagnostiko bat egitea izan zen, eta Vienako kasuan diagnostiko eta biltzarren konklusioak, aho batez harturikoak, oso fruitu-emaileak izan ziren. Lehenengo aldiz giza eskubide guztiak, multzoen arteko desberdintasunik gabe bultzatzeko ahaleginean, NBEk estatu oro inplikatu nahi izan baitzuen era

oso zehatzean, batez ere bi eskaera eginez: bata, giza eskubideen planak (eta horren barruan bereziki giza eskubideen hezkuntza plana) onartu behar zirela galdatuz; eta bigarrena, estatu orok giza eskubideen erakundetzea serio har zezala galdatuz. Beste hitz batzuetan esanda: estatu batek giza eskubideen kultura serio hartu nahi izanez gero, horien gaineko plan sistematiko bat prestatu behar zuen, eta hori garatzeko giza eskubideen erakunde indartsuak sortu.

Alemaniak, bigarren puntuari dagokionez, 2000. urtean bere etxeko lanak modu deigarrian —eta nire aburuz eredugarrian— egin zituen. Izan ere, urte horretan, Vienako Biltzarren aginduari era esanbidezkoan men eginez, giza eskubideen institutu berri eta independente bat sortu baitzuen. Institutua egin zen batez ere koordinazio lana bultzatzeko: koordinazio lana gobernu kanpoko erakunde eta gobernu zein legebiltzarren artean; koordinazioa estatuko erakunde ofizialen eta gizartearen artean; koordinazioa unibertsitate lanaren eta gaineko erakunde artean; koordinazioa estatuko eta nazioarteko giza eskubideen sarearen artean.

Giza eskubideen alorrean, hainbat esparrutan gertatzen den moduan, eragile ugari daude, izaera desberdinetakoak. Esaterako: gizarte mailan erakundeak behar dira giza eskubideen urraketak salatzeko, izan ere horiek sinesgarriak baitira eginkizun horretan, eta bultzatzen dute, estandarrek aurrera egin dezaten. Beste alde batetik, gobernuak, legebiltzarrek ere lan egin behar dute giza eskubideen alde, eta horretarako unitate admi-

nistratiboak sortu behar dituzte, modu sistematikoan politikak eta lan-ildo parlamentarioak gaiotan eragingarri suerta daitezten. Aurreneko guztiak, ordea, unibertsitatean sortzen den jakintza aprobetxatuz, hura bere egin eta bultzalana egin behar dute. Aldi berean, bai tokiko zein lurralde edota estatu-sareek lan egin beharko lukete nazioarteko giza eskubideen begiraleekin batera: NBEren Giza Eskubideen Kontseiluarekin, Kontalari Bereziekin, giza eskubideen nazioarteko hitzarmenak begiepean izaten dituzten batzordeekin, eta abarrekin.

Alemanek asmatu zuten Giza Eskubideen Institutua bat sortu zutenean lokalitua gisa: bere funtzioa ez da inor ordeztzea, bultzalana koordinatua egitea baizik, eragile guztiak eragingarritasun maila biderka dezaten.

2000. urtean sortu zuten aipatu Institutua, baina modu independentean, 1993ko Parisko printzipioetan oinarriturik: alegia, ez du gobernuak ez legebiltzarrek agintzen. Haiek diruz Institutua finantzatzen dute, baina gero ezin dute behartu lan egitea haien irripidez, era askean baizik. Gainera sortu zenez geroztik, Institutuak foro bat sortu zuen, giza eskubideen erakundeena, hor lidergoari —erakunde guztien zerbitzura— ekin ziolarik. Eta hori ez ezik, ikerkuntza, hedakuntza, aholkularitza, elkartasuna kanpoko herrialdeetara, eta abar lantzen eta sustatzen du eguneko giza.

2000. urtean sortu, lanari ekin, egonkortu eta orduan, 15 urte pasatu ondoren, 2015eko uztailaren 16an, Alemaniako Legebiltzarrek bere estatusa era egonkorrean finkatu eta sendotu egin du, lege baten bitartez (*Gesetz über die Rechtsstellung und Aufgaben des Deutschen Instituts für Menschenrechte* -DIMRG-), hain justu ere 2016ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu dena.

Europa, gure Europa, aspaldi honetan ez dabil fin giza eskubideen eginkizunean: horra hor errefuxiatuen espektakulu tamalgarria. Horren kontrastez, ordea, beste Europak daude: hiritar solidarioena; errefuxiatuei atak irekitzen dizkietenena... horiek guztiak berri onak dira, giza eskubideen kultura sendotzeko Alemanian legez sendotu duten giza eskubideen institutu bezain berri ona. Horra hor eredua inoiz baino beharrezkoagoa!

**Beste Europak daude:  
hiritar solidarioena,  
errefuxiatuei atak  
irekitzen  
dizkietenena... horiek  
guztiak berri onak dira,  
giza eskubideen kultura  
sendotzeko Alemanian  
legez sendotu duten giza  
eskubideen institutu  
bezain berri ona. Horra  
hor eredua inoiz baino  
beharrezkoagoa!**